



**ITSASERTZAREN**

**SUNTSIKETA**

**UZTAILA 2005**

**GREENPEACE**





# EUSKAL HERRIA



## ITSASERTZEKO URBANIZAZIOA

Euskal kostaldea eraikitze-erritmo geldiezin baten lekuko ari da izaten. Urbanizazio-egitasmoen arabera, joera honek etorkizunean jarraituko du ere. **Bakio, Getxo, Gorniz, Plentzia** edo **Sopelaren** moduko udalerriak kostaldeko urbanizazioz betetzen hasi dira, eskaera hori turismoak baino, etxebizitzaren prezio altuen ondorio izanik, eta itsasertzeko udalerrri hauek logela-hiriak bihurtuz.

Joan den urtean, Auzitegi Gorenak Plentziako paduran 700 pisu eta 600 ontzirentzako kirol-portua eraikitze galarazpena berretsi egin zuen. Galarazpen hori Ingurumen Ministerioak agindutako zedarritzeak epaitzen du, lur zati hori itsaso eta lurreko jabari publikotzat hartzen baitzuen.

Bestetik, Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak Urdaibaiko natur erreserban 20 txalet baino gehiago eraikitze baimeana, exekutiboaren ekintza “bidegabekoa, inkongruentea eta ulergaitzat<sup>1</sup>” hartuz.

Kantauri itsasoko itsasertza eta artadi-lurralde babestuetan 13,2 hektareako urbanizazioa baimentzearen, Eusko Jaurlaritzak aldaketa bat egin zuen kostaldeko esparru honen babespen-araudian.

Eusko Jaurlaritzak hirigintzaren presioak ekarritako lurralde hezeen desagerpena geldiarazi nahi du Lurralde Hezeen Arlo-planaren bitartez. Honek hezegune horiek babestuko ditu, biodibertsitatearen gordailuak direnez gero, erregulazio hidrikoan funtsezko zeregina dutelako, urdunen birkarga ahalbidetu eta uholdeen agerpena arintzen baitute.

## TURISMOA

Iragan den urtean turistek bizkarra eman zioten euskal kostaldeei. FRONTUREK egindako txostenaren arabera, Euskal Herriak %2,4ko jaitsiera izan zuen aurreko urtean hartutako turista-kopuruari dagokionez.

Itsasertzeko eskualdeen artean, Euskal Herria da bizitegi-turismoak ekarritako

moda jarraitzen ez duen bakarra. Euskal kostaldean, etxebizitzaren %5,4 besterik ez da bigarren bizileku kopuruaren adibide. Itsasaldean eraiki diren urbanizazio berriak euskal udalerrien eskaerari erantzuten diote batik bat.

## KOSTALDEAN GARATUTAKO EKINTZA ETA AZPIEGITURAK

**Muskizen** kokatuta dagoen Ondarra hondartzak, (Bizkaian bisitatuena bere uretako kalitate txarra agerikoa bada ere), nola CLH-k (Hidrokarburu-Elkarte Logistikoak) bere paisaiatik tangak kenduko dituen ikusiko du 2006. urtean, hitzartutako epea baino zortzi urte beranduago. Era berean, Ingurumen Ministerioak hondartza eta paduren ingurugiro-egoera hobetuko duen proiektuari ekingo dio. Proiektu horrek Bilboko Portu-agintaritzaren asmoekin topo egin dezake, honek Bilboko portua handitzeko asmoz hondartzaren inguruetako harea erauzteko nahiera agertu baitu.

[1] Salaketa hori Ekologistak Martxan taldeak egin zuen.



© Ministerio de Medio Ambiente

**Bilboko Portuan** betetzeak aurrera eramateko asmoz, 2005eko apirilaren 18an Ingurumen Ministerioak itsaspeko aztarnategitik harea erauztea zilegitu egin zuen. Proiektuaren helburua “ingurune fisiko eta biologikoan ondorio adierazgarririk eragin gabe aztarnategitik ahalik eta material gehiena erauztea” zen<sup>1</sup>. Erauzketa-gunea Ondarrako hondartzatik 1.300 metrotara dago eta 208 hektareako hedadura dauka. Kostaldean Legeriak galarazi egiten du eraikuntzarako agregatuak erauztea, hondartzen birsorkuntza eta sorkuntzarako<sup>2</sup> ez bada. Hala ere, kasu honetan Bilboko Portu-agintaritzaren proiektua izanik, Portuaren Legeria ezartzen da. Eusko Jaurlaritzak ohartarazi egin du petrolio eta gorotz-uretatik eratorritako metal astunek osoki kutsatutako sedimentuak iraultzearen arriskuaz, datu hau proiektuaren Ingurune-eraginaren Ikerlanean agertzen ez bada ere.

Bilboko Portu-agintaritzak 400.000 metro karraturen kalifikazioa aldatu egin du Abra ibai-ahoa kokatzen den Punta del Lucero mendiko mendebalde-hegaleko lurri dagokienez. Katalogazio berriak bertan biltegiak eta merkantzia-aldatze eta energia-ekoizpenerako gunea kokatzea ahalbidetzen du. Zierbena eta Muskizeko udalbatzek ohartarazten dute eragiketa hau

interes espekulatiboen ondorio izan daitekeela, bere ingurune eta olgetarako balioa dela eta. Gainera, lanak egiteak Ondarrako hondartzan eraginak izan ditzake, hortaz udalbatzek Sustapen Ministerioari lur horiek kentzeko eskatu diote, portukoak izan ez daitezten eta, ondorioz, beren zainketa berma dadin.

Bada eraldatutako beste proiektu bat, **Pasaian kanpoaldeko portu** bat eraikitzearena. Ikerketa fasean dagoen proiektu hau Pasaia badiaren birsorkuntza urbanistikoari lotu zaio, kontserbazio-egoera ezin hobean dagoen euskal itsasertzaren babestutako tarte hau suntsitu gabe aurrera eraman daitekeena. Gipuzkoako Aldundiak agindutako ikerketaren arabera, proiektuak ingurugiro-arazo larriak ekartzeaz gain, gizarte eta ekonomia-onura zalantzatsua izango luke. Ikerketak 46 ingurugiro-eragin “larriak” eta zortzi “kritiko” antzeman ditu, Jaizkibel mendia-  
ren hegaletako materialen erauzketatik eratorriak eta labarretan nahiz landare-azalean eragina izango luketenak. Horrek interes bereziko ingurune-balioak suntsitu eta aldatuko lituzke.

[2] Uztailak 28ko Kostaldean 22/1988 Legea. 63.2 artikulua.





© Greenpeace/Bueno

Gainera, ikerketak azpiegituraren balio handia desegokitzat jotzen du (800 milioi euro baino gehiago) eta epe luzean (15-20 urte) gutxi erabiliko dela dio. Horretaz gain, kanpoaldeko portua eta egun handia-gotze-prozesu baten barnean dagoen Bilboko portuaren arteko hurbiltasuna adierazten du, bi porturen arteko koordinazio-eza azpimarratuz. Estatuko portuetan ohikoa da portu-plangintza baten hutsa.

**Mutrikuko** arrantza-superportuak gaitzespen ugari jasaten ari da ere. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak proiektuaren beharrik ez dela salatzen du; hala ere, aurreko martxoan portuaren itsasoko sARBIDEA hobetzeko lanak esleitzeko lehiaketa iragartzen zen<sup>11</sup>. Lanak burutzea gaur eguneko hondartza desagertzea dakar.

Euskal kostaldean kirol-portu berriak eraikitzekeo egitasmoak ugaritzen ari dira. **Mutriku, Deba, Orio, Hondarribia, Bermeo** eta **Plentziak** kirol-instalazioak egiteko asmoak dituzte<sup>12</sup>. **Donostian** 700 itsasontzirentzako kirol-instalazio berriak egiteko aukera aztertzen ari dira, bata Mompasaren puntan eta bestea Pasealeku Berrian.

## KUTSADURA

Eusko Jaurlaritzak bere kostaldeetan zabalduko isuriak desagertu arazi omen nahi ditu eta horretarako asmo handiko onbideratze-plan bat martxan jarri du kostalde eta ingurune-balio handiko guneetan kokatzen diren 10.000 bizilagunetik gorako herrietan.

Aurreko udan **Zarauzko** hondartzak (hondartzako urak Europar Batasunak ezarritako ingurune-baldintzak bete gabe jarraitzen du), Bustinzuriko industrialdeko enpresa baten isuria jasan zuen, baina hartzea aldi baterako galaraziz.

Prestige ontziaren marea beltzak bere uhara euskal kostaldean zabaltzen jarraitzen du, ekaitz baten ondoren **Zarautz, Getaria** eta hainbat hondartzetara fuel-olio laginak heltzen baitira oraindik. Eusko Jaurlaritzak dioenez, bere itsasertzean 500 eta 1.000 tona fuel-olio jasotzeke gelditzen da oraindano. Hidrokarburu hondakinetaz gainera, hondamendiaren eragina aztertzekeo euskal kostaldea 43 gunetan zatitu zen eta zazpik "larriki kalteurik" diraute.

### BAINUA HARTZEKO KALITATE TXARREKO URA DUTEN HONDARTZAK

*(Bainua hartzekeo uren kalitateari buruzko Europako Batzordearen Txostenetik hartutako datuak)<sup>13</sup>*

- Oribarzarrekeo hondartza. Ondarroa, Gipuzkoa.
- Toñako hondartza. Sukarrieta, Gipuzkoa.
- Zarauzko hondartza. Gipuzkoa.
- Santiagoko hondartza. Zumaia, Gipuzkoa.

### 2004. URTEAN AURREKO URTEAREKIN ALDERATUZ BAINUA HARTZEKO KALITATEA GALDU ZUTEN HONDARTZAK

- Oribarzarrekeo hondartza. Ondarroa, Guipuzkoa.
- Zarauzko hondartza. Gipuzkoa.
- Santiagoko hondartza. Zumaia, Gipuzkoa.
- Gornizko hondartza. Bizkaia.
- Plentziako hondartza. Bizkaia.



© Greenpeace/Saldaña

## ONDORIOAK

Euskal kostaldeko urbanizazioa oso handia da zenbait gunetan. Itsasaldean eraikitako urbanizazio berriak hirien prezio altuek eragindako eskaerari erantzuten diote batik bat.

Eusko Jaurlaritzak hezeguneak babestu edo kutsadura ezerezteko helburuz hartutako neurriek itsasertzari lagunduko diote, zalantzarik gabe. Hala ere, portuko ekintzek egoera hauek iluntzen dituzte.

Bilboko portuaren zabalkuntzak, itsaspeko lurraren erauzketak eta eraikuntza ahalbidetzen duen lursailen birkalifikazioak kostaldearen arazo larriena dakarte: portu-agintaritzen eskuetan amaitzea, horiek portuen errentagarritasunaz bakarrik arduratzen direlarik. Pasaian kanpoaldeko portu bat eraikitzeko proiektua espainiar portuen joera buru-eraillearen barnean ezartzen da, azken hauek Sustapen Ministerioaren kudeaketa ezaren ondorioz, elkarren artean borrokatzeari ohitu direlarik.

## MEHATXUPEAN DIREN KOSTALDEKO GUNEAK



### Bizkaia

1. Bilboko portua. Hare-erazketak kostalde aurrean. Lursailen birkalifikazioa beren eraikuntzarako.
2. Getxo. Urbanizazioa kostaldean.
3. Sopela. Urbanizazioa kostaldean.
4. Gorniz. Urbanizazioa kostaldean.
5. Plentzia. Urbanizazioa kostaldean. Kirol-portu berria.
6. Bakio. Urbanizazioa kostaldean.
7. Bermeo. Kirol-portu berria.
8. Toñako hondartza. Sukarrieta. Bainua hartzeko uren kalitate txarra.
9. Oribarzarreko hondartza. Ondarroa. Bainua hartzeko uren kalitate txarra.
10. Mutriku. Ingurune-erasanak izango dituen kirol-arrantza portua.

### Gipuzkoa

11. Santiagoko hondartza. Bainua hartzeko uren kalitate txarra.
12. Zarauzko hondartza. Bainua hartzeko uren kalitate txarra.
13. Orío. Kirol-portu berria.
14. Pasaia. Kanpoaldeko portua eraikitzeko proiektua.
15. Hondarribia. Kirol-portu berria.

<sup>i</sup>Kutsadura eta klima-aldaketaren prebentziorako Idazkaritza Nagusiaren 2005eko martxoaren 1eko erabakia, non Bilboko portu-agintaritzaren “Muskiz aldeko hare-erazketak” proiektuari buruzko ingurune-eraginaren adierazpena egiten den.

<sup>ii</sup>Herri Lan eta Garraio Saileko Zerbitzuen Zuzendariaren ebazpena, non Mutrikuko portuaren itsasoko sarbidea hobetzeko lanak zuzentzeko laguntza teknikoa helburu duen kontratua esleitzeko lehiaketa iragartzen den. BOE 69. 22/03/05.

<sup>iii</sup>Herri Lan eta Garraio Sailak 2005eko apirilean emandako informazioa.

<sup>iv</sup>*Bainua hartzeko uren Kalitateari buruzko txostena. 2004ko aldia.*

Europako Batzordea.

[http://www.europa.eu.int/water/water-bathing/report/bathing\\_report\\_2004\\_es.pdf](http://www.europa.eu.int/water/water-bathing/report/bathing_report_2004_es.pdf)